



TOLOSAKO
UDALA

2022DO200067

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkateak emana.

Siriako Gerra Zibila 2011ko udaberrian piztu zen, eta hasieratik izan du nazioarteko esku hartze zabala. Lesbos 2015ean egin zen ezaguna, gehienbat Siriako gerraren ondorioz, milaka eta milaka errefuxiatuk babes bila Europara jo zutenean. Greziako uharte hori, errefuxiatuentzat Europako ateetako bat da, Turkiatik 12 kilometrora dagoena.

Turkiarekiko duen gertutasunagatik, Lesbos uhartearen Europarako sarbide nagusietako bat bilakatu zen, beraz, jatorrizko herrialdeetatik ihesi Egeo itsasoa zeharkatzen duten errefuxiatuentzat. Ondorioz, Greziako uharteetako errefuxiatu esparruetan izugarrizko jende pilaketak eragin dira azken sei urteetan zehar; osasun eta higiene baliabideak oso urriak dira bertan, eta eskaintzen diren otorduak eskasak eta kalitate txarrekoak. Gainera, eta ez dago haur eta adingabeentzako inolako hezkuntza zerbitzu publikorik.

Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartea Europara iristen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmo gabeko elkartea da. Azken urteetan, Grezian dauden errefuxiatu esparruetan janaria prestatzeko eta banatzeko ekimenari tinko eusten diote, bertan harrapatuta dauden pertsona zaurgarrienei oinarrizko eskubideak bermatzeko eta beren bizi-baldintzak babesteko helburuarekin.

Elkarte honek, 2016.urtean erabaki zuen Mediterraneo itsasoaren ertzean gertatzen ari zen krisi humanitario larriaren aurrean esku-hartzea, eta hasiera batean Chios irlan kokatutako bi errefuxiatuen kanpamentuetan eskaini zuen oinarrizko elikadura. Ondoren, Patras eta Atenasen, eta azkenik, 2019urtetik aurrera, lortu zuten Lesbosen elikagaiak banatu ahal izateko sukaldea osatzea. Ordundik, etengabe ari dira laguntza humanitaria eta oinarrizko elikadura bermatzeko otorduak eskaintzen gaur egun asilo eskatzaile gehienek lurra hartzen duten irlan.

Zaporeak elkartea laguntza humanitaria eskaintzen ari da azken urteotan, eta bere ekarpena garrantzitsua da bi zentzutan: alde batetik, beren borondatearen aurka, Lesbosen kanpamentuan egotera behartuak ikusi diren pertsonen oinarri-oinarrizko eskubidea den elikadura beharrak asetzeko egiten duen kudeaketari dagokionean, eta bestetik, zerbitzu hori eman ahal izateko Euskal Herriko gizartean egiten duen sentsibilizazio, kontzientziazio eta solidaritaterako deia zabaltzeko lanketari dagokionean ere.

Tolosako Udalak, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailaren bidez sustatzen eta betetzen du alor honetan duen konpromisoa. Hain zuzen ere, herriko hainbat elkarterekin kolaboratzen du nazioarteko lankidetzaren proiektuak sustatzerakoan, eta horiek diruz lagundu ere egiten ditu urtero ateratzen dituen dirulaguntza deialdien bidez. Dirulaguntza lerro desberdinak daude aurreikusita lanketa horretarako, eta horietako bat da laguntza humanitarioko ekimenak diruz laguntzea.



TOLOSAKO
UDALA

Ikusirik 2022ko deialdia hutsik gelditu dela laguntza humanitarioari dagokion lerroan, egokia ikusten da helburu horretarako behar edo proposamenen bat sortzen bada, bideratzeko beharrezko prozedura abiaraztea.

2022ko abenduaren 14ko datarekin eskaera jaso zen Tolosako Udalean, ondokoa adieraziz: " Berriz ere gertatzen ari den egoera humanitario argi eta dramatikoaren aurrean eta larrialdiaren kronifikazioan bilakatuz, lanean jarriatzen dugu kausa honetan laguntzeko, egunero errazio duin banatuz. Hau bakarrik da posible gure boluntarioen laguntzagatik eta euskal gizartearen zein hainbat erakunderen ekarpenei esker. Horregatik, zure Udaletxearen laguntza eskatu nahi dugu edota diru-laguntzen deialdiez ohartarazi , gerratik ihesi datozen errefuxiatuekin gure lana egiten jarraitu ahal izatea erraztuko digun ekarpen ekonomiko batekin."

Era berean, 2022ko abenduaren 23ko datarekin aurkeztu du elkarteak Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan eskaera zeinaren bidez eskatzen den 17.160€ko laguntza urrian eta azaroan eman duten zerbitzuaren gastu hauek diruz laguntzeko: banaketarako ontziak 10.414,17€ko kostuarekin; haragi xehetua 6.452,32€ko kostuarekin; eta irina 349€ko kostuarekin.

Eskaera aztertuta, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailaren iritziz erabat betetzen ditu dirulaguntza izendun zuzena emateko beharrezko baldintzak, besteak beste, honakoak kontuan izanda:

- Tolosako Udalak badu lan-lerro bat, zeinaren bidez diruz laguntzen dituen gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorrean diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteak. Laguntza horiek bideratzeko arautegian jasotzen denez, 6. laguntza-lerroan ematen diren laguntzekin beharra duten komunitateetan larrialdiko ekintza humanitarioak egiteko dirulaguntzak arautzen dira; gatazka belikoek edo katastrofe naturalek sortutako egoerak arintzeko izango dira laguntza humanitario edo larrialdietakoak, eta/edo oinarrizko beharrak edo beste edozein premia.

- Laguntza humanitarioko ekimenak diruz laguntzeko deialdi publikoa egin zen 2022 urtean, maiatzean hain zuzen ere. Dena den, epe barruan eskaerarik ez zen jaso, eta ondorioz, hutsik deklaratu behar izan zen. Era berean, urte honetan bigarren bezala deialdia bideratzeko espedientea abiarazi bazen ere, ez da posible izan hori bideratzea epe barruan.

- Zaporeak elkarteak aurkeztutako eskaerak erabat bat egiten du Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren alorraren helburuekin, laguntza-lerro honi dagokionean. Elkarteak erakutsi du azken urteotan gaitasuna egitasmoaren kudeaketa egokia egitekoa, baita ere gure herrian informazioa, sentsibilizazioa eta solidaritatea sustatzeko ekintzailetasuna ere.

- Egitasmoak duen interes publiko eta soziala eta, batez ere, ekimen honen atzetik dauden arrazoi humanitarioak sobera egiaztatuta daude; horrela erakusten digute komunikabide desberdinetan etengabe, eta horrela baieztatzen dute bertako egoera aurrez-aurre bizi izan dutenen testigantzek ere.

ESKUa48df9e-56aa-48ba-8bcb-4efda345eba7



TOLOSAKO
UDALA

Idazkaritza eta Kontuhartzailetzaren txostenak kontutan izanik, Alkatetza honek

ERABAKI DU:

Lehenengoa: Onartzea Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartek, G75 113 738 Identifikazio fiskala duenak aurkeztutako eskaera, eta onartzea 17.160€ko dirulaguntza izendun zuzena, urria eta azaroan erosi behar izan dituzten banaketarako ontziak, haragi xehetua eta irinaren gastuak ordaintzen laguntzeko, baldin eta dirulaguntzaren eranskina behin betikoz onartzen bada.

Bigarrena: Dirulaguntza onartzeko ebazpenak honako baldintzak jasoko ditu:

a) *Dirulaguntzaren helburuaren definizioa.*

Dirulaguntza honen helburua da Zaporeak elkarteak Greziako Lesbos irlan ematen duen laguntza humanitarioko egitasmoa diruz laguntzea, urrian eta azaroan zehar elikagai-banaketa egiteko eta oinarrizko elikagai orekatua bermatzeko erosi behar izan dituzten produktu batzuen ordainketarekin lagunduz.

b) *Aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorra, 2017ko uztailaren 7an argitaratu zena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

c) *Onuradunak.*

Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartek, G75 113 738 identifikazio fiskala duena.

d) *Dirulaguntza motak.*

Dirulaguntza izendun zuzena.

e) *Dirulaguntza aurrekontuko zein kredituri egotzi behar zaion:*

2022ko Udal aurrekontuko 0500.491.01.23100 partidaren kargura finantzatuko da laguntza hau.

f) *Beste administrazio edo entitate publiko zein pribatutatik datozen helburu bereko beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna izango du.*

g) *Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak.*

Elkartek aurkeztutako zuriketa onartzearekin batera ordainduko da ontzat emandako kopurua.

h) *Ordainketa aurreratuak eta konturako abonamenduak egiteko aukera, bai eta onuradunek aurkeztu beharreko berme-araubidea ere, hala badagokio.*

Ez da ordainketa aurreraturik egingo.

ESKUA48dff9e-56aa-48ba-8bcb-4efda345eba7



TOLOSAKO
UDALA

i) *Pertsona onuradunek dirulaguntzaren helburua lortu dela eta jasotako funtsak behar bezala aplikatu direla egiaztatzeko epe eta modua.*

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da, gehienera ere, 2023ko urtarrilaren 31. Dirulaguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, honako dokumentazioarekin:

- a) Jarduera-memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.
- b) Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.
- d) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.
- e) Urrian eta Azaroan elikagaien banaketa egiteko behar izan diren ontzien, haragi xehetuaren eta irinaren fakturak eta ordainketa egina dagoela ziurtatzen duten agiriak.

Organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagiriak begiratuta, eta dagokion ebazpena emango du.

Hirugarrena: Dekretu honen berri ematea kontuhartzaitzari eta Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkarteari

Dekretua bete bedi eta interesatuari legearen arabera jakinaraz bekio.

ALKATEA

Nire aurrean,
IDAZKARI AKZIDENTALA

OLATZ PEON ORMAZABAL

KARMELE CONTRERAS GOIKOETXEA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - Helbide elek.: udate@tolosa.eus
www.tolosa.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa48dff9e-56aa-48ba-8bcb-4efda345eba7**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022DO200067-Dekretu Orokorra/Decreto General (ZAPOREAK SOLIDARIOS)